

Aiherra-Antzuola :

30 urte

Badu 30 urte Aiherra eta Antzuola haurridetuak edo senidetuak direla. Aiherra, Baxe Nafarroako herria, Hazparneko lurraldean kokatua, 8 auzoalde, 1.000 bizilagun inguru, ekonomiaren alorrean laborantza nagusi, industria mailan hegazkingintzako enpresa gotor bat ere badelarik herriko lurretan, 250 langilerekin. Gaurko auzapeza: Arño Gastambide. Antzuola, Gipuzkoako herria, Bergara eta Zumarraga artean kokatua, 2.100 biztanle, herri industrial, denboran larru lantegi asko zaukana, 1990eko hamarkadan azken larru enpresak ateak hetsi arte. Herrian eskola bakar bat, publikoa, D eredukoa (dena euskaraz). Gaurko auzapeza: Inma Beristain. 1984an hasi ziren bi herrien arteko harreman sakonak, hango eta hemengo herritar zenbaitek sustaturik. Geroztik adiskidetasun hori indartu da, urtero bi herrietako jendeak herri batean ala bertzean biltzen direla, besta giroan. 2011n badute ere liburu eder bat plazaratua: "Antzuola eta Aiherra, mugak zubi". Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko herri-birazkatzeetan, eredu edo modelo bezala ekarria da Aiherra eta Antzuolaren arteko hori, bi aldeetako biztanleen gehiengoa funski inplikatzeko baita, ez da bakarrik hautetsi zenbaiten arteko lokarri arrunta, bertze kasu batzutan gertatzen den bezala.



Inma Beristain eta Arño Gastambide auzapezak elgarri bortzekoa ematen

"Gure altxorra luzaz bizi arazi"

Haurridetze horren 30. urtemuga handizki ospatu nahi dute bi herriek. "Hauxe da gure altxorra oraino luzaz bizi dadin nahi ginukeena" zioten A. Gastambide eta I. Beristain bi auzapezek aurkezpen ekitaldian. "30 urte hauetan, belaunaldiz belaunaldi, harreman hunek zinez aberastu gaitu". Jean-Michel Barbier Belzuntze elkartekoak, bere aldetik, gehitzen zuen "buruan ditugun mugak ere ezeztatu behar" ditugula. Eta bide hortatik, segur, urrats handia egina dute Aihertar eta Antzuolarrek. Joanden asteburuan hasirik, 30. urtemugako ospakizunek bi hilabete nunbaitan iraunen dute. Joanden igandean, mendian dute bi herrietakoek elgar atxeman, Sara eta Zugarramurdiren arteko mugan, Aihertarrak Sarako harpeetatik abiatu-rik, Antzuolarrek aldiz Urdazuritik. "Mugaren gainetik herri bakar bat gira", hara zer adierazi nahi izan duten.

Hitzaldi, zuhaitz landatze, gaubeila

Aiherra eta Antzuolak obratu nahi dituzten bertze ekitaldiak hauexek dira. Bi hitzaldi, biak Antzuolan: urriaren 15ean (18:30), Eneko Bidegainena, "Euskara eta lehen mundu gerra", eta azaroaren 5ean, tenore berean, Xebax Christyrena, "Euskoa, Iparaldeko tokiko moneta". Bi hitzaldi horiekin, Antzuolarrek hobeki jabetuko dira hemengo egoeraz. Bertzalde, bi ekitaldi ofizial izanen dira, Aiherran urriaren 25ean eta Antzuolan

azaroaren 22an. Bakotzak senidetueri ongi-etorri beroena egingen die, besta giroan (bazkari, kantu, kontzertu). Hitzarmen berri bat izenpetuko da ere bi herrien artean. Eta zuhaitz landatzea ere egingen da, adiskidetasunaren sinbolo iraukor gisa: Antzuolarrek pagondo bat landatuko dute Aiherran, eta Aihertarrek gaztainondo bat Antzuolan. Hau ere azpimarra dezagun: Aiherran urte oroz

egiten den gaubeila famatua Antzuolan egingen da, azaroaren 22ko egun orogarri hortan, artista hauekin, Kike Amonarriz eta Pantzo Hirigarai umoristak, Eneritz Zabalera eta Aitzol Iturbe bertsulariak, eta Niko Etxart kantaria. Egund hartan ere, Aiherrako Belzuntze elkarteari Antzuolako bandera eskainia izanen zaio, 30 urtez eginiko lan suharraz eskertzeko.

P.J.



Aihertar eta Antzuolar, 30. urtemugako ospakizunen aurkezpenean